

Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko Eguna

Bihar, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu, baina, batez ere, aldarrikatzen dugu. Egun honek gogorarazten digu historian zehar emakumeek berdintasunaren alde egindako borroka, eta oraindik ere lortu beharreko bidea luzea dela.

Gure egunerokoan, gizarteko alor guztietan, oraindik desberdintasunak eta oztopoak daude. Emakume askok diskriminazioa, soldata-arrakala, indarkeria matxista edo ikusezintasuna jasaten dituzte.

Ikastola komunitate gisa, errespetua, elkartasuna eta justizia soziala sustatzen jarraitu behar dugu. Gure esku dago estereotipoak apurtzea, aniztasuna balioestea eta neska-mutilek aukera berdinak izan ditzaten bermatzea.

Egun hau aldarrikatzeko, ikastolan hainbat ekintza egin dira. Ikasle eta irakasleen parte-hartzearekin. Alde batetik, DBH 4ko ikasleek ikastolako kanpoko balkoian tela morea jarri dugu. Ekintza sinboliko honek berdintasunaren aldeko konpromisoa eta emakumeen ikusgarritasuna adierazten ditu. Bestalde, DBHko maila guztietan lelo lehiaketa egin da, eta irabazlea Goiuria Bilbao Sanchez izan da. **“Alaba, emazte, ama, neskato. Aski da, oihuka dezagun”** leloarekin.

Erdiko aretoan "M8" handi bat dago ikusgai, eta ikasle guztiok (HH-LH-DBH) guretzat esanguratsuak diren emakumeen irudiak itsatsi ditugu. Modu horretan, komunitate osoak elkarrekin osatutako omenaldia sortu dugu. Argazkiak martxoan egongo dira ikusgai.

Gaur, eta urteko egun guztietan, ahotsa altxatu behar dugu emakume guztien eskubideen alde. Horregatik, martxoaren 8a ez da soilik aldarrikapen bat, baizik eta etorkizun hobe baten aldeko konpromiso kolektiboa.

Elkarrekin, berdintasuna eraikitzen jarraituko dugu.

Eskerrik asko parte hartzeagatik eta aldaketarako bidean urratsak emateagatik!

Goiuriak gogorarazi digun moduan: Alaba, emazte, ama, neskato. Aski da, oihuka dezagun! 🦊💜